

10-12-2019.

Kaixo Olentzero:

Klase batean dagoen mural bat naiz. Hor hidrosfera eta geosfera azaltzen dira. Gutun hau idazten dizut umeak nola portatzen diren kontatzeko. Kortxo batean nagoenez pentsatuko duzu ezin zaitudala lagundu, baina horrez gain nik lagunduko zaitut. Klase honetako neskak eta mutilak hobe baino hobeto portatzen dira. Denek opari bat merezi dute, baina hori ez da dena, urte honetan lurrean dagoen Santurtziko zabor guztia batuko dute. Gabon honetan klasea paperezko elur malutekin apainduko dute, ere bai kartulinaz egindako marrazkiekin. Beno, nik ere nahi nuke gauza bat beste: mural gehiago ni bakarrik ez egoteko, ez dakit lortu ahalko duzun baina bestela bost axola, konpainia ona daukat klase honetan. Uste dut urte honetan ez duzula ikatzik inori eramango.

Musu bat Olentzero maitea.

Ikusi arte.